Hernaniko Udala

# HERNANIKO UDALEKO OHOLTZARI ESTALKIA EROSTEKO KONTRATAZIOA.

## BALDINTZA TEKNIKOAK

### AURREKARIAK

Udalak duen 12x8ko oholtza zaharra da, burnizkoa da, ezin dira hankak regulatu, estalkia ez da ondo ixten eta ura sartzen da, muntaia oso lan fisiko eta astuna da. Oholtza hori bi erdi egin eta 6x8ko oholtzak montatzen dira urtean 6 aldiz seguru eta 8 alditara ere iritsi da.

Sanjoanetan 6x6 oholtza montatzen da erabat tapatu gabe estalkirik ez dagoelako.

Hernaniko Udalak badauka oholtzak egiteko azpiko materiala hori Ulmari erosi zitzaion eta lehen estalkiak ere Ulma enpresak hornitzen zituen. Gaur egun Ulma enpresak utzi dio hornidura mota hori egiteari eta merkatuan Ulmako oholtzari eransten zaion estalkirik ez dago.

Ondorioz, bigarren eskuko estalkia da aukerarik egokiena. Neurrira egitea edo oholtzari kanpotik jartzea dira beste aukerak, baina bi kasu horietan ekonomikoki eta teknikoki eskaintza okerragoa da. Azterketa tekniko eta ekonomiko luze baten ondoren, merkatuan eskaintza bakarra identifikatu da, enpresa espezializatu batek egindakoa, eta gainera, prezio aldetik merkeena dena.

### HELBURUA

6x6 + 6x8 + 6x10 oholtzak estaltzeko materiala erosteko kontratazioa arautuko duten baldintza teknikoak ezartzea.

### HORNITU BEHARREKO MATERIALA

Agertokiko estalki-sistema, 3 neurritan moldagarria (6x6m 8x6m eta 10x6m) eta norabide anitzeko sistemarekin bateragarria. Udalak duen Ulmako oholtzari egokitzen zaion estalki sistemarako beharrezkoak diren material guztiak: metalezko estrukturak eta hiru neurriak estaltzeko lonak.

### HORNIDURA ENTREGATZEKO EPEAK eta PROZEDURA

Materiala entregatzea astebeteko epean egingo da.

Hornidura ondorengo helbidean entregatuko da, adostutako data eta orduan:

Hernaniko Udala. Herri-lan Sailean
Florida auzoa 100 - 20120 HERNANI
943336040 - Luzap.458